

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

#### Zk-5503

231/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Jaurlaritzaren Lehendakartzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko Dekretua aldatzeko dena.

Urtarrilaren 29ko 27/2002 Dekretuaren bidez (EHAA, 28 zb, 2002ko otsailaren 8koa), Jaurlaritzaren Lehendakartzako egitura organikoa eta funtzionala ezarri zen. Europako Batasuneko Herrialdeen Batzordearen arautegia aldatzen duen Nizako Ituna martxan jarzteak gomendatzen du Europako Batasunaren jarduerarekin harremanak dituzten ordezkariak organoak baldintza berrietara egokitzea.

Azaldutakoagatik, Jaurlaritzako ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8c) artikulua ematen dizkidan eskumenei jarraiki, eta Jaurlaritzaren Kontseiluko 2003ko irailaren 30ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*— Urtarrilaren 29ko 27/2002 Dekretuaren 3. artikulua aldatzen da. Dekretu horren bidez Jaurlaritzako Lehendakartzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen da eta honela idatzita geratuko da:

«1. Kanpo Harremanen esparruan Lehendakariak dagozkion esleipenen jardutean Kanpo Harremanetarako ordezkariaren laguntza izango du, eta Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen ondorioetarako sailburuordearen maila izango du.

2. Kanpo Harremanetarako Ordezkariak Jaurlaritzaren Lehendakartzari lagunduko dio, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak instituzional gisa, Herrialdeen Batzordean, Europako Kontseiluko Toki eta Herrialde Boterean Batzarrean eta herrialdeetako beste organo eta erakundeetan.»

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko irailaren 30ean.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### Nº-5503

DECRETO 231/2003, de 30 de septiembre, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno—Lehendakaritza.

Mediante Decreto 27/2002, de 29 de enero (B.O.P.V. n.º 28, de 8 de febrero de 2002) se estableció la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno—Lehendakaritza. La entrada en vigor del Tratado de Niza, que modifica la regulación del Comité de las Regiones de la Unión Europea, aconseja adecuar a las nuevas circunstancias los órganos de representación relacionados con la actividad de la Unión Europea.

Por lo expuesto y, en virtud de las facultades que me confiere el artículo 8 c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 30 de septiembre de 2003,

DISPONGO:

*Artículo único.*— Se modifica el artículo 3 del Decreto 27/2002, de 29 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno—Lehendakaritza, que quedará redactado en los siguientes términos:

«1. Para el ejercicio de las atribuciones que corresponden al Lehendakari en materia de Acción Exterior, estará asistido por un Comisionado o Comisionada para las Relaciones Exteriores, que a los efectos de la Ley 7/1981, de 30 de junio de Gobierno, tendrá el rango de Viceconsejero o Viceconsejera.

2. El Comisionado o Comisionada para las Relaciones Exteriores ejercerá las funciones de apoyo a la Presidencia del Gobierno como representación institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el Comité de las Regiones, en el Congreso de los Poderes Locales y Regionales del Consejo de Europa y en otros órganos u organizaciones regionales.»

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de septiembre de 2003.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.